


# EHU-ren adierazle-sistema gizarteari kontuak emateko (2019ko edizioa)

EHU Gizarte Kontseilua

(erref. E4921 v_01)

2019ko uztaila



Universidad del País Vasco
**Consejo Social**

Euskal Herriko Unibertsitatea
**Gizarte Kontseilua**

# Aurkibidea


**1. Sarrera ..... 5**
1.1. Zer esparrutan kokatzen den lana ..... 6
1.2. Lanaren helburuak ..... 8
1.3. Hautatutako adierazleek barne hartutako arloak eta berrikusketa multzoa aintzat izanda ..... 8
1.4. Analisi konparatiborako hautatutako erreferentziazko unibertsitateak ..... 9
1.5. Datu-iturriak eta erabilitako dokumentu-erreferentzia nagusiak ..... 10

**2. Kontuak ematearen adierazleak ..... 11**
1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak ..... 13
2. Gastu Arrunta /Ikasleko ..... 14
3. EHUren estaldura-tasa ..... 15
4. Uzte-tasa ..... 16
5. Errendimendu-tasa ..... 17
6. Arrakasta-tasa ..... 18
7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa ..... 19
8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa ..... 20
9. Bat etorritako enplegu-tasa ..... 21
10. Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako denbora ..... 22
11. I+G+b-ren diru-sarreren tasa/kontratazio zuzeneko ..... 23
12. Doktoretza-tesiak/100 irakasleko ..... 24
13. Patenteen eskaera/milioi bat biztanleko ..... 25
14. Zientzia-ekoizpena/100 irakasleko ..... 26
15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa ..... 27
16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa ..... 28
17. Akreditazioa berritzen zaien tituluen ehunekoa ..... 29
18. Graduko euskarazko derrigorrezko kredituen tasa ..... 30
19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa ..... 31
20. Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa ..... 32

**3. Adierazleen laburpena ..... 33**
**A Eranskina. Adierazleen definizioa ..... 37**
**B. eranskina Adierazle bakoitzerako iturri eta datu erabilgarriak ..... 40**
**C. Eranskina Datu absolutuak ..... 42**
**D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin ..... 44**

# Aurkibidea

**GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

1. grafikoa - Graduko ikasketen prezio publikoen pisu erlatiboa gastu arruntekiko. 2016 (%) ....13
2. grafikoa - Datu konparatiboak unibertsitateen arabera. Aurrekontu-likidazioa 2016 ....13
3. grafikoa - Gastu arruntaren eta ikasleen bilakaera Indizeen kopurua (2012=100) ....14
4. grafikoa - Gastu arruntak graduko eta master ofizialeko ikasketetan matrikulatutako ikasleko, 2016 (€)....14
5. grafikoa - Matrikulazioa STEM diziplinetan....15
6. grafikoa - Graduko, masterreko eta doktoretzako matrikula ....15
7. grafikoa - Lehen ikasturteko uzte-tasaren bilakaera, ezagutza-arloaren arabera EHU....16
8. grafikoa - Uzte-tasa globalaren alderaketa ....16
9. grafikoa - Errendimendu-tasa ezagutza-arloaren arabera EHU ....17
10. grafikoa - Errendimendu-tasaren bilakaera alderatua....17
11. grafikoa - Errendimendu-tasen alderaketa. 2016-2017 ikasturtea ....17
12. grafikoa - Arrakasta-tasa ezagutza-arloaren arabera EHU....18
13. grafikoa - Arrakasta-tasaren bilakaera alderatua ....18
14. grafikoa - Arrakasta-tasen alderaketa. 2016-2017 ikasturtea....18
15. grafikoa - Borondatezko praktikak egiten dituzten ikasleak, 2017/18 ikasturtea....19
16. grafikoa - Emandako batez besteko puntuazioa*, gaitasun-arloen arabera. 2013ko promozioa....20
17. grafikoa - Hirugarren mailako prestakuntzarekin bat etorritako enplegu-tasa, sexuaren arabera. 2015eko promozioa ....21
18. grafikoa - Goi-mailako prestakuntzarekin bat etorritako enplegua, ezagutza-arloaren eta sexuaren arabera. 2015eko promozioa ....21
19. grafikoa - Karrera amaitu zenetik lehen enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak Bilakaera promozio-urtearen arabera ....22
20. grafikoa - Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak 2014ko promozioa ....22
21. grafikoa - Karrera amaitu zenetik lehen enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak 2015eko promozioa ....22
22. grafikoa - 2017an emandako/kontratatutako I+G+b-rako funtsen jatorria....23
23. grafikoa - Ikerketatik eratorritako guztizko diru-sarrerekiko ikerketa aplikatutik* datozen funtsak (%).2016....23
24. grafikoa - Tesien banaketaren bilakaera, hizkuntzaren arabera-....24
25. grafikoa - Defendatutako doktoretza-tesiak/100 irakasleko 2017 ....24
26. grafikoa - Patente-eskaeren banaketa, motaren arabera. 2017....25
27. grafikoa - Urteko zientzia-ekoizpena/irakasleko (2017)-....26
28. grafikoa - Bilakaera argitalpenen kopuruan....26
29. grafikoa - Banaketa ezagutza-arloaren arabera, 2017 ....26
30. grafikoa - Ikasle atzerritarrak, nazionalitatearen arabera (%) ....27
31. grafikoa - Graduko ikasle atzerritarrak, 2017-2018....27
32. grafikoa - Masterretako plazen eskaintza, ikasketa-adarraren arabera 2017-2018 (%) ....28
33. grafikoa - Atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen banaketa EHUn, ezagutza-arloaren arabera. 2017-2018 ....28

# Aurkibidea

34. grafikoa - Ikertzaile kopurua unibertsitateko. 2017-2018 ikasturtea ....29
35. grafikoa - Lehiaketa-deialdi publikoetako ikertzaileen kopurua / ikertzaile guztiak ....29
36. grafikoa - Euskaran matrikulatutako ikasle hasi berrien banaketa, ezagutza-arloaren arabera, 2017/2018 ....30
37. grafikoa - Euskaran matrikulatutako ikasle hasi berrien proportzioa, ezagutza-arloaren arabera, 2017/18....30
38. grafikoa - Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa unibertsitateen arabera, 2016-2017....31
39. grafikoa - Emakumeen tasa Doktore irakasle eta ikertzaileen kolektiboan eta doktore ez diren irakasle eta ikertzaileen kolektiboan....31
40. grafikoa - Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa 2017-2018 ....32
41. grafikoa - Matrikulatutako emakumezko ikasleak, ezagutza-arloaren arabera (%).2017-2018....32

# 1. Sarrera

# 1. Sarrera

## 1.1. Zer esparrutan kokatzen den lana

**Euskal Herriko Unibertsitateko** (UPV/EHU) Gizarte Kontseiluak 2008. urtetik egiten du *Unibertsitateko Zerbitzuen Adierazle Sistema* hau. Proiektu hau beste unibertsitate batzuek egindako ekimenekin lotuta dago, gizarteari kontuak emateko ikuspuntutik. Aztertutako askotariko ereduak oinarri hartuta, estatukoak nahiz nazioartekoak, EHUrentzat aplikagarria izan zitekeen sistema bat diseinatu zen, eta adierazle multzo bat hautatu zen, Unibertsitatearen helburu esplizituei edo inplizituei lotuta, helburuen betetzean zenbateraino aurrera egin zen jakinarazteko lagungarriak.

Horrela egindako adierazle multzoak premisa hau betetzen du abiapuntutzat: adierazle kopuruak mugatu izan behar du eta hautatutako adierazleek sinpletasun-irizpideekin bat etorri behar dute, ulermenaren, interpretazioaren, alderagarritasunaren, baliagarritasunaren eta erabilgarritasunaren ikuspuntutik. Adierazleak hautatzean hiru irizpide aplikatzen dira funtsean:

- Gizartearen eta interes-taldearen oinarrizko jakin-minarekin bat etortzea.
- Esparru horretan izandako esperientzia luzea dela-eta erreferentziazkotzat jo daitezkeen unibertsitate-esparruaren kontuak emateko eskema gehienetan egotea.
- EHUk berak Plan Estrategikoan adierazitako helburuekin bat etortzea.

Txostenaren ondoz ondoko edizioetan adierazle-sistema eguneratu egin da. Horretarako, adierazleen edukia findu eta uneoroko elementu eta interes-puntu berriei egokitu zaie, Gizarte Kontseiluak eta Unibertsitateak berak egindako iradokizunak kontuan izanda beti, EHUko Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu alorrak argitaratutako edo emandako informazioa eta datuak oinarri hartuta, beste iturri batzuetakoekin osatuz eta alderatuz.

Edizio honetan, STEM (Science, Technology, Engineering & Mathematics) izeneko profil profesionalen gabeziak eragindako kezka orokorra zela eta, matrikulazioari eta EHUn eskainitako plazei (3. Adierazlea- Estaldura-tasa) buruzko adierazleari heltzeko garaian, STEM diziplinak kontuan hartu dira, adierazle horien jarraipena errazteko. Lan-merkatuak gero eta gehiago eskatzen ditu zientziari, teknologiari, ingeniaritzari eta matematikei lotutako profesionalak. Prestakuntza bat edo bestea egitea erabaki behar dutenei, ordea, ez zaizkie gehiegi gustatzen aukera horiek. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta nazioko eta nazioarteko esparruaren helburua da STEM profesionalen bolumena handitzea. Europak berariazko plan bat zehaztu du: *STEM Action Europako Plana*. Planaren helburua da, hain zuzen, gazteak beren prestakuntzarako eta lanbiderako diziplina horiek aukeratzera motibatzea. Arlo horiek oso ordezkaritza txikia dute Espainian Europar Batasunarekin alderatuta. Dena dela, etorkizunean hazteko aukera handienak dituzte eta 4.0. industriako eta ekonomia digitaleko profil profesionalek gehien eskatzen dituztenak dira.

# 1. Sarrera

Bestalde, egindako urteko txostenek bere garaian diseinatutako diseinuari eutsi diote: adierazle bakoitzeko berariazko fitxa bat dago, eta fitxa horretan adierazlearen balioa (edo balioak, kasu bakoitzean dagokion desagregazioarekin) jasotzen da eskura dagoen azken datuarekin, adierazlearen bilakaera eta, horretarako aukera dagoenean, beste unibertsitate batzuekin analisi konparatibo bat. Zentzu horretan, informazioaren erabilgarritasunaren ikuspuntutik, Unibertsitate Informaziorako Sistema Integratua sendotzea garrantzitsua izan da unibertsitateko adierazle nagusien azterketan alderaketa-ikuspuntua erabiltzen hastea errazteko. Unibertsitateen Idazkaritzak sustatu zuen sistema integratu horren sendotza eta unibertsitateek eta autonomia-erkidegoek hartzen dute parte.

Azken urteetan, erakundeen gardentasunaren eta kontuak ematearen konpromisoa garrantzia hartuz joan da esparru publikoko erakunde guztietan. Herrialde gehienetan, Unibertsitate Sistemetan kudeaketa-mekanismo gardenagoen eta eraginkorragoen alde egin dute, kontularitza-auditoriez haratago, inbertitutako baliabideen eraginkortasuna eta koherentzia aztertzeko.

Halaber, EHUn Euskal Herriko Unibertsitateak gizarteari kontuak ematea sustatuko zuela ezarri zen 2011n onartutako Estatutuen bidez, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko beste elementu gisa. Ildo horretan, azpimarragarria da **EHUko Gardentasun Ataria.** Atari hori bat dator errektore-taldearen gardentasuna eta gobernantza ona sustatzeko konpromisoarekin. Kudeaketa irekiko filosofia du atariak, kanpoko eskakizunei eta informazioa izateko zilegizko beharrei erne dago Unibertsitatearen erakunde-esparruan, esparru ekonomikoan, akademikoan... EHUren 2018/2021 Plan Estrategikoak, Gobernantzari eta Baliabideei buruzko Ardatzean, besteak beste, Atari hori zabaltzea eta eguneratzea proposatzen du.

Era berean, azpimarragarriak dira ikasleei egindako era askotako ebaluazioak eta galdetegiak, bai eta Aldezleren irudia ere, EHUko kide guztien –ikasleak, irakasleak eta administrazioko eta zerbitzuetako langileak- eskubideak betetzen direla zaintzeaz arduratzen den erakundea, alegia.

# 1. Sarrera

## 1.2. Lanaren helburuak

Aurreko gogoetak kontuan izanda, lan honek helburu hauek ditu:

- EHUrako proposatutako adierazle-sistema berrikustea, eta hala badagokio, adierazle batzuen formulazioa berriz aztertzea.
- Adierazleen kalkulua eguneratzea, eskura dagoen informaziorik berriena erabiliz.
- EHUren datuen eta beste unibertsitate batzuen datuen arteko alderaketak berrikustea eta eguneratzea.
- Txosten analitiko-deskribatzaile hau egitea, bilakaera- eta alderaketa-alderdi azpimarragarrienak jasoz.

## 1.3. Hautatutako adierazleek barne hartutako arloak eta berrikusketa multzoa aintzat izanda

Hautatutako adierazleak esparru hauetan egituratu dira:

| | |
|---|---|
| 1. **Finantzazioa eta gastuak** | Baliabideei eta gastuei buruzko ratio erantsiekin lotutako posizionamendua. |
| 2. **Zenbateraino sartuta dagoen** | Ikasle kopurua eta estaldura-tasa |
| 3. **Prestakuntza** | Lortutako emaitzak eta prestakuntza-prozesuaren eraginkortasuna |
| 4. **Inguruneko beharretara egokitzapena** | Prestakuntzaren baliagarritasuna, laneratzea, enplegua lortzea |
| 5. **I+G+b ikerketa** | Ikerketaren bizitasuna eta kalitatea, eta harremana enpresarekin |
| 6. **Nazioartekotzea** | Ikasleen mugikortasuna eta erakarpena |
| 7. **Prestigioa** | Akreditazioaren berritzea duten graduko eta masterreko tituluak. |
| 8. **Hizkuntza-normalizazioa** | Euskarazko kredituen eskaintza |
| 9. **Gizarte-erantzukizuna** | Aukera-berdintasuna genero-ikuspegian |

## 1.4. Analisi konparatiborako hautatutako erreferentziazko unibertsitateak

Hautatutako kontuak emateko adierazleen analisi konparatiboa egiteko, baldin eta informazioa eskuragarri badago, erreferentziatzat hartu dira:

- Estatuko **Unibertsitate Publiko Presentzialen** multzoa.
- **G9 Taldea osatzen duten unibertsitateak.**
- EHUrentzako erreferentziazko espazio naturala da. Espazio horretan, Taldeko unibertsitate-erakundeen arteko lankidetza sustatu nahi da eta esparru akademikoan eta irakaskuntzan informazioa trukatu. Euskal Herriko Unibertsitateaz gain, gainerako 8 unibertsitate publikoak unibertsitate publiko bakarra duten autonomia-erkidegoekin bat datoz eta hauek dira:
  - Kantabria
  - Gaztela-Mantxa
  - Extremadura
  - Balearrak
  - Errioxa
  - Nafarroa
  - Oviedo
  - Zaragoza

## 1.5. Datu-iturriak eta erabilitako dokumentu-erreferentzia nagusiak

- EHUko Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloak emandako berariazko datuak
- EHUren Gardentasun Ataria
- EHUren Plan Estrategikoa 2018/2021
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana. 2019-2022
- EHUren Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022)
- Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022. Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza
- Unibertsitate eta Enpresaren arteko Euskal Estrategia. Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza
- *Unibertsitateko lan-munduratzea*. Lanbide
- Unibertsitate Estatistika EAEn. Eustat
- Unibertsitateko adierazleen estatistikak. SIIU. Unibertsitateko Informazio Sistema Integratua. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa
- Espainiako Unibertsitate Sistemako Datuak eta Zifrak. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa
- *La Universidad Española en Cifras*. CRUE
- Enplegagarritasunaren eta enpleguaren barometroa Espainian, 2016 eta 2017 (Edición Máster). CRUE eta beste batzuk.
- CYD txostena. CYD Fundazioa.
- CYD barometroa. CYD Fundazioa.
- CYD ranking 2019. CYD Fundazioa.
- Espainiako unibertsitateen U-Rankinga 2018. BBVA Fundazioa, IVIE.
- iUNE Behatokia. Ikerketa-jarduera Espainiako Unibertsitatean.
- Education at a glance, 2018. OCDE
- Espainiako unibertsitateetan kalitatearen kanpo-ebaluazioaren egoerari buruzko txostena 2017. ANECA (Kalitate eta Ziurtapenen Ebaluazio Agentzia Nazionala)

# 2. Kontuak ematearen adierazleak

## 2. Kontuak Ematearen Adierazleak

| Arloa | Adierazleak |
|---|---|
| 1. FINANTZAZIOA ETA GASTUAK | 1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak |
| | 2. Gastu arrunta / ikasleko |
| 2. ZENBATERAINO SARTUTA DAGOEN | 3. EHUren estaldura-tasa |
| 3. PRESTAKUNTZA | 4. Uzte-tasa |
| | 5. Errendimendu-tasa |
| | 6. Arrakasta-tasa |
| | 7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa |
| 4. INGURUNEKO BEHARRETARA EGOKITZEA | 8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa |
| | 9. Bat etorritako enplegu-tasa |
| | 10. Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako denbora |
| 5. I+G+B IKERKETA | 11. I+G+b-ren diru-sarreren tasa/kontratazio zuzeneko |
| | 12. Doktoretza-tesiak/100 irakasleko |
| | 13. Patenteen eskaera/milioi biztanleko |
| | 14. Zientzia-ekoizpena/100 irakasleko |
| 6. NAZIOARTEKOTZEA | 15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa |
| | 16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa |
| 7. PRESTIGIOA | 17. Akreditazioa berritzen zaien tituluen ehunekoa |
| 8. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA | 18. Graduko euskarazko derrigorrezko kredituen tasa |
| 9. GIZARTE-ERANTZUKIZUNA | 19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa |
| | 20. Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa |

## 1. FINANTZAZIOA ETA GASTUAK

# 1. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / GASTU ARRUNTAK

| Adierazlea | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Transferentzia arruntak/gastu arruntak (%) | 80,5 | 82,2 | 83,0 | 89,4 | 91,8 | 92,3 | 96,9 | 91,1 | 91,8 | 89,5 | 92,2 | 81,8 | 82,4 | 86,9 | 86,3* |

Iturria: EHU Zifratan 2013. urtera arte (likidatutako aurrekontuak). CRUE, *La Universidad Española en Cifras* (2014, 2015 eta 2016). "EHUren Gardentasunaren Ataria" (2017)

1. grafikoa - Graduko ikasketen prezio publikoen pisu erlatiboa gastu arruntekiko. 2016 (%)




Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*.

2. grafikoa - Datu konparatiboak unibertsitateen arabera. Aurrekontu-likidazioa 2016

*(Transferentzia arruntak/gastu arruntak %)*




Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*.

CRUEk La Universidad Española en Cifras (UEC) izeneko argitalpenean emandako azken datuek, 2016. urteari buruzkoek, hau adierazten dute: EHUn **transferentzia arrunten** ehunekoa **gastu arruntekiko** % 86,9koa da, 2015ean lortutakoa baino ehuneko lau puntu handiagoa. Horren ondorioz, autonomia-erkidegoko finantzaketa sendotu egin da diru-sarreren iturri nagusi gisa. Informazio-iturri horri (CRUE, UEC) esker, unibertsitateen arteko alderaketak egin daitezke. **Unibertsitate publiko presentzialen** multzoari erreparatzen badiogu, egiaztatzen da EHUn transferentzia arrunten pisua gastu arruntekiko ehuneko 15 puntu handiagoa dela Estatuko batezbestekoa baino (% 65,7). **G9** erreferentziazko taldea osatzen duten unibertsitate publikoei dagokienez, EHU rankingeko buru da, funts publikoek unibertsitatearen finantzaketan duten garrantziari dagokionez.

*Universidad Española en Cifras* argitalpenak, era berean, unibertsitate publikoetan **prezio publikoek gastu arruntekiko** zer pisu erlatibo duten alderatzeko aukera ematen du. Graduko ikasketei erreparatuz bereziki, egiaztatu da adierazle horrek % 10,9ko balioa zuela 2016an EHUren kasuan, Espainiako unibertsitate publikoen multzoan hautemandako % 15,2ko batezbestekoaren aurrean: EHUko ikasleen finantza-esfortzua, beraz, txikiagoa da, edo beste hitz batzuetan esanda, finantza-esfortzu publikoa ikasleko handiagoa da.

EHUren Gardentasun Atariak datu eguneratuagoak ematen ditu aurrekontu-likidazioari buruz, 2017ko informazioa ere bai baitu. Emandako emaitzaren arabera, transferentzia arrunten ratioa gastu arruntekiko % 86,3koa zen 2017an. Transferentzia arrunt horien gehiengoa euskal sektore publikotik zetorren. Kopuru absolutuetan, EHUk jasotako transferentzia arrunten bolumena (aitortutako eskubidea) 346,7 milioi eurokoa izan zen (367,3 milioi euro, 2016an).

**1. FINANTZAZIOA ETA GASTUAK**

# 2. GASTU ARRUNTA / IKASLEKO

3. grafikoa - Gastu arruntaren eta ikasleen bilakaera Indizeen kopurua (2012=100)




Iturria: EHUren Gardentasun Ataria eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

4. grafikoa - Gastu arruntak graduko eta master ofizialeko ikasketetan matrikulatutako ikasleko, 2016 (€)




Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*.

EHUren Gardentasun Atarian bildutako aurrekontu-likidazioei buruzko informazioari erreparatuz, egiaztatu da 2017an **likidatutako gastu arrunta** (aitortutako betebeharrak) 401.704 eurokoa izan zela (2016an baino % 2,4 handiagoa).

**Gastu arrunta/ikasleko** adierazleak informazioa ematen digu irakaskuntza-kalitatea gutxi gorabehera kalkulatzeko. CRUEren *La Universidad Española en Datos* argitalpenean ageri diren datuen arabera, graduko eta masterreko ikasketetan, EHUren gastu arrunta ikasleko 10.062 €-koa izan zen 2016-2017 ikasturtean; hau da, aurreko urtean izandako balioa baino % +2,2.

**Unibertsitate publiko presentzialen multzoarekin alderatuz,** egiaztatu da EHUn gastu arrunta ikasleko % 42 handiagoa dela Estatuko unibertsitate publiko presentzialen batezbestekoa (7.017€) baino. **G9** taldeko unibertsitate publikoei erreparatuz, egiaztatu da Errioxako Unibertsitateak lortu duela baliorik handiena (10.352 €), eta EHU bigarren geratu dela.

## 2. Zenbateraino Sartuta Dagoen

## 3. EHUren Estaldura-Tasa

| Adierazlea | 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017-2018 | 2018-2019(2) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Estaldura-tasa (%) (1) | 79,7 | 80,2 | 81,2 | 79,9 | 80,6 | 80,5 | 79,5 | 80,0 | 79,0 | 77,9 | 76,1 | 75,2 | 74,5 |

(1) Graduko ikasleak EHUn/ unibertsitateko ikasle guztiak EAEko unibertsitate presentzialetan (%).
(2) Behin-behineko emaitzak.

Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa. Unibertsitateko Estatistika.

5. grafikoa - Matrikulazioa STEM diziplinetan




6. grafikoa - Graduko, masterreko eta doktoretzako matrikula




*behin-behinekoa

Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

EHUren 2018-2022 aldirako Plan Estrategikoak mehatxuen artean aipatzen du "*beste eskaintza batzuen lehia, demografiaren bilakaera dela-eta ikasleen bolumena pixkanaka murrizten ari den une batean*".

Gai horrekin lotuta, Graduko ikasketetan estaldura-indizea (EHUk EAEko Graduko guztizko ikasleekiko duen %) % 74,5 izan zen 2018-19 ikasturtean. Balio hori aztertutako denbora-segidan erreparatutako txikiena da, eta 2013/14 ikasturtetik joera beheranzkoa izan da etengabe. **Ikasle hasi berriei** soilik erreparatzen bazaie, estaldura-ratioa % 72,5 izan zen 2018-19an.

Berritze-tasa (hasi berrien matrikulen %, matrikula guztiekiko) ere txikitu egin zen EHUn (2016-17 ikasturtean % 24koa izan zen, eta 2015-16an %24koa). Berritze-tasa Estatuko unibertsitate publikoen batezbestekoaren antzekoa da (% 23,8).

**Okupazio-indizea** edo aurretiko izen-emate bidezko hasi berrien matrikularen (8.205) eta Graduko ikasketetan eskainitako plazen (8.864) arteko ehunekoa % 92,6koa izan zen EHUrentzat 2018-19 ikasturtean.

EHUren Gardentasun Atariko informazioari erreparatuz, lau **titulaziotan soilik daude 20 ikasle baino gutxiago** (hiru campusetan emandako titulazioen % 5 baino gutxiago).

**Graduatuei** erreparatuz gero, ikusi da EHUren kuota erlatiboa txikitu egin dela: 2015-16 ikasturtean EAE osoko graduatuen % 73,8 biltzen zituen, eta 2017-18 ikasturtean, % 72,5.

STEM diziplinetan (zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika) unibertsitateko matrikulazioak egiteko kezka gero eta handiagoa denez, EHUn zer pisu duten kalkulatu da: 2018-19 ikasturterako guztizkoaren % 31 biltzen dutela ikusi da, eta beheranzko joera arina adierazi dutela (% 32, 2014-15 ikasturtean). EAEko unibertsitate guztien STEM matrikulazioek kuota txikiagoa xurgatzen dute: % 28koa. Hau da, EHUk STEM matrikulen kuota proportzionalki handiagoa biltzen du, nahiz eta kuota hori beherantz egiten hasi den.

EHUn STEM diziplinetan matrikulatutako emakumeen portzentajezko pisuak egonkor eutsi dio, eta hobekuntza arin bat ere antzeman da (% 32,7koa 2015-16 ikasturtean, eta % 33,1ekoa 2018-19 ikasturtean).

EHUko matrikulen banaketa Espainiako unibertsitate publiko presentzialen multzoarekin alderatuz **ikasketa-adarren** arabera, egiaztatu da euskal unibertsitatean adar teknikoek pisu handiagoa dutela (% 22,8koa, eta % 19,2koa Espainiakoetan).

STEM esparruetako unibertsitateko matrikulen ehunekoa Espainian EBn baino nabarmen txikiagoa da.

Azkenik, **Masterreko ikasketetan** jartzen badugu arreta, EAEn % 60koa da. Doktoretzen kasuan ehuneko hori % 89koa da.

## 3. PRESTAKUNTZA

## 4. UZTE-TASA

7. grafikoa - Lehen ikasturteko uzte-tasaren bilakaera, ezagutza-arloaren arabera EHU




Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*.

Uzte-tasa baliabideen erabileran izandako eraginkortasunari, ikasleen jokabide akademikoari eta irakasleek egindako lanari buruzko adierazle interesgarria da. CRUEk **lehen ikasturtean hasi berri diren ikasleen taldea-ren azterketako uzte-tasari** buruz emandako datuei erreparatuz, 2016-2017 ikasturtean % 15,8ko emaitza lortu zen. Ehuneko hori % 17,8koa da Espainiako unibertsitate publiko presentzialen multzorako. Horrez gainera, lehen ikasturtean uzten dutenen tasak berriz ere behera egin duela ikus daiteke, aurreko urteko emaitzarekin (% 16,5) alderatuta, azken urteetako joera berretsiz.

**Ezagutza-arloaren** arabera, Ingeniaritzan eta Arkitekturan (% 25,6) izan dira lehen ikasturtean uzte-tasa handi-enak, eta Osasun Zientzietan, aldiz, uzte-indize txikienak izan dira (% 6,1). Artea eta Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak eta Zientziak esparruek uzte-indize homogeneoagoak adierazten dituzte, % 14 eta % 15 artean dabiltzanak. Arte eta Giza Zientzietan izan ezik, azken urteetan kasu guztietan egin dute behera tasek. Bestalde, Ingeniaritza eta Arkitektura adarretan izan ezik, adar horietan uzte-indizeak Estatutako batezbestekoaren antzekoak dira; EHUko gainerako diziplinetan tasak neurritsuagoak dira.

SIIUko (Unibertsitateko Informazio Sistema Integratua) **uzte-tasa globalari** (lehen ikasturtean, bigarrenean eta hirugarrenean ikasketak uzteko tasen arteko batura) buruzko datuei erreparatuz, EHUn 2012-2013 ikasturtean sartu zen taldearen uzte-ehuneko globala % 25,2koa izan zela ikusten da, unibertsitate publiko presentzialen multzorako lortutakoa baino txikiagoa: % 27,4koa. **G9** taldea aintzat hartuta, ikusten da Nafarroako Unibertsi-tate Publikoak soilik duela EHU baino posizio hobea uzte-tasa globalari dagokionez.

8. grafikoa - Uzte-tasa globalaren alderaketa

***(Cohorte de entrada 2012-2013)***




Iturria: SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistikak. 2018.

## 3. PRESTAKUNTZA

## 5. ERRENDIMENDU-TASA

9. grafikoa - Errendimendu-tasa ezagutza-arloaren arabera EHU




10. grafikoa - Errendimendu-tasaren bilakaera alderatua




11. grafikoa - Errendimendu-tasen alderaketa. 2016-2017 ikasturtea




Iturria: SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistikak.

Graduko ikasleen errendimenduaren hobetzea da EHUren 2018/2021 Plan Estrategikoan zehaztutako ekintzetako bat. SIIUren datuak oinarri hartuta, 2016-2017 ikasturtean, **EHUn graduko titulazioetan errendimendu-tasa** (gainditutako kreditu kopuruaren eta matrikulatutako kreditu kopuruaren arteko ehuneko harremana) % 77,9koa izan zen. Azken urtean, tasak berriz ere hobera egin du, nahiz eta igoera ez izan beste ikasturteetakoa bezain adierazgarria. 2016-2017 ikasturtean EHUn matrikulatutako kredituen batez bestekoa 55,3koa izan zen, aurkeztutako kredituen batez bestekoa 48,6koa, eta gainditutakoena, % 43,0koa. Emakumeek balio altuagoak dituzte hiru kasuetan.

**Ezagutza-arloen** arabera, ohiko rankinga errepikatzen da berriz, hau da, Osasunaren Zientziek dituzte tasarik altuenak, eta Teknikoek, berriz, baxuenak. Bata bestearen artean alde handiak daude: % 89,9koa eta % 64,1koa, hurrenez hurren, 2016-2017an. Aipatu behar da EHU azken CYD rankingean (seigarren edizioa, 2019an argitaratua) nabarmentzen dela STEM esparruetan izandako errendimendu altuagatik, zehazki, Kimikan eta Biologian.

**Masterrean errendimendu-tasa** handiagoa da graduari dagokiona baino: % 92,7koa izan zen EHUrentzat 2016-2017 ikasturtean. Masterreko ikasketetan hautemandako emaitzarik onena, oro har, gainerako unibertsitateenen berdina da. **Emakumeek errendimendu** handiagoa dute graduan nahiz masterrean: orokorra da. Zenbait titulutan emakumeak izateak eragina du hautemandako errendimenduan.

Alderaketa eginda, erreparatu da EHUren errendimendu-tasa 2016/17 ikasturtean ehuneko puntu bat txikiagoa izan zela (% 77,9) **Unibertsitate publiko presentzialen** multzoaren batez besteko datua baino (% 78,9), nahiz eta azken aldiko bilakaera aldekoagoa izan EHUren kasuan. **G9 taldearen** testuinguruan, EHU seigarrena da, eta Extremadurako, Nafarroako eta Zaragozako unibertsitate publikoak dira rankingaren buru. Bestalde, Espainiako unibertsitate publiko presentzialetan errendimendu-tasa zortzi puntu handiagoa da **unibertsitate publiko presentzialen** multzoaren batezbestekoa baino.

## 3. Prestakuntza

# 6. Arrakasta-tasa

12. grafikoa - Arrakasta-tasa ezagutza-arloaren arabera EHU




2016-2017 ikasturtean, **arrakasta-tasa,** gainditutako kreditu kopuruaren eta aurkeztutako kreditu kopuruaren arteko ehuneko harreman gisa hartuta, % 88,6koa izan zen EHUn graduko titulazio ofizial multzoarentzat (% 91,7 emakumeen kasuan, eta % 84,6 gizonen kasuan).

EHUren graduko titulazioetan arrakasta-tasa handiagoa da Estatuko **unibertsitate publiko presentzialen** multzoan (% 87,4) erreparatutakoa baino. Eta **G9** taldearekin alderatzen bada, euskal unibertsitatea rankingeko lehena da.

Estatuko unibertsitate pribatu presentzialen multzoan, arrakasta-tasa handiagoa da (% 91,3) publikoetan baino (% 87,4).

**Ezagutza-arloen** arabera, Osasunaren Zientziak nabarmentzen dira berriz ere, % 95eko arrakasta-tasa baino handiagoa baitute, eta haren atzetik daude Artea eta Giza Zientziak (% 92,5). Ingeniaritza eta Arkitektura adarrek biltzen dituzte baliorik baxuenak, ohi bezala: % 79,4.

**Masterreko ikasketei** erreparatuz, berriz ere egiaztatu da arrakasta-tasa handiagoa dela Graduko titulazioetan erregistratutakoa baino. EHUren kasuan, arrakasta-tasa % 99,1ekoa izan zen (% 99,4 emakumeen artean) 2016-17 ikasturtean eta unibertsitate presentzialen multzoan tasa hori % 98,6koa da (% 99 emakumeen artean).

13. grafikoa - Arrakasta-tasaren bilakaera alderatua




14. grafikoa - Arrakasta-tasen alderaketa. 2016-2017 ikasturtea




Iturria: SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistikak.

3. PRESTAKUNTZA

# 7. ENPRESETAN BORONDATEZKO PRAKTIKAK EGITEN DITUZTENEN TASA

| Adierazlea | 2003-2004 | 2004-2005 | 2005-2006 | 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017/2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa (*)** | 7,5 | 7,9 | 8,1 | 8,1 | 8,1 | 7,9 | 7,6 | 7,7 | 7,4 | 9,1 | 10,7 | 10,9 | 12,0 | 11,6 | 13,3 |
| **Borondatezko praktika kopurua guztira** | 3.670 | 3.818 | 3.801 | 3.691 | 3.558 | 3.390 | 3.175 | 3.198 | 3.100 | 3.712 | 4.399 | 4.270 | 4.463 | 4.256 | 4.801 |

* Graduan matrikulatutako guztizko ikasleen % Ez dira aintzat hartzen Practicuma, ez eta gradu-amaierako proiektuak ere.

Iturria: EHU Zifratan eta Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloa.

15. grafikoa - Borondatezko praktikak egiten dituzten ikasleak, 2017/18 ikasturtea




Iturria: EHU, Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloa.

EHUk emandako informazioaren arabera, 2017/18 ikasturtean **guztira** 4.801 **borondatezko praktika** (ikasketa-planean curriculum-diziplina gisa aintzat hartu gabe egin dira ) erregistratu ziren. Iazko ikasturtean kontabilizatutako borondatezko praktikak (4.256) baino % 13 gehiago izan ziren, eta duela hamar urte baino % 35 gehiago. Borondatezko praktika kopurua eta EHUn graduan matrikulatutako ikasleen guztizkoa (nahiz eta pertsona berak praktika bat baino gehiago egin dezakeen) lotzen dituen adierazleari erreparatuz, 2017/18 ikasturterako % 13,3ko ratioa lortu zen: aztertutako segidan izandako baliorik handiena da.

Borondatezko praktiken **ezagutza-arloaren** araberako banaketak adierazten du, berriz ere, Gizarte Zientziek eta Zientzia Juridikoek biltzen dituztela borondatezko praktiken kuotarik handienak (ia % 44koa 2017/18 ikasturtean), eta haien atzetik diziplina teknikoak daudela (% 31). Aurreko urteko emaitzekin alderatuz, egiaztatu da arlo guztietan egin duela gora borondatezko praktiken kopuruak, Arte eta Giza Zientzien arloan izan ezik. Igoera handienak Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen eta Zientzien arloetan izan dira.

Praktikekin oro har lotuta, azpimarratu behar da 2017ko CYD Barometroan puntuaziorik handiena jasotzen duen gaietako bat dela, besteak beste, enpresek ikasleak eta/edo tituludunak praktiketarako hartzea (emandako garrantzi-maila: 5 puntutatik 4,5). Barometro horretan, unibertsitateak ekonomian eta gizartean duen zereginarekin lotutako zenbait alderdiren garrantzi-maila baloratzeko eskatzen zaie adituei.

## 4. Inguruneko Beharretara Egokitzapena

# 8. Unibertsitateko Tituludunek Jasotako Gaitasunen Baliagarritasunaren Balorazioa

| | 2010 inkesta (2007ko promozioa) | 2011 inkesta (2008ko promozioa) | 2012 inkesta (2009ko promozioa [2]) | 2016 inkesta (2013ko promozioa) |
|---|---|---|---|---|
| **Jasotako gaitasunek lan egiteko duten baliagarritasunaren balorazioa [1]** | 6,4 | 7,1 | 6,5 | 6,5 |

[1] Gaitasunek lanerako zer baliagarritasun duten jakiteko egin den balorazioan, unibertsitateko prestakuntza edo unibertsitate mailakoen pareko funtzioak eskatzen dituzten lanpostuetan dauden edo egon diren pertsonen iritzia jaso da soilik.

[2] Eskura dauden datuen artean jauzi bat da: 2009ko eta 2013ko promozioen artean ez dago emaitzarik.

Iturria: Lanbide. Lan-munduratzeari buruzko ikerketa. EHUrentzako emaitzak.

16. grafikoa - Emandako batez besteko puntuazioa*, gaitasun-arloen arabera. 2013ko promozioa




(*) Gaitasun-arlo bakoitzaren puntuazioa indize sintetiko bat da (batezbestekoen batezbestekoa).

Iturria: Lanbide. EHUko promozioen lan-munduratzearen ikerketa.

Lanbidek egindako ***Lan-munduratzearen ikerketak*** unibertsitatean graduatutakoei egindako inkesta bat du oinarri. Inkesta horretan, unibertsitateko prestakuntza izatea edo pareko funtzioak betetzea eskatzen duten lanpostu bat eskuratu dutenei galdera bat egiten zaie unibertsitatean eskuratutako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa egiteko eskatuz. Gai horri buruzko informazioa duen txostenaren azken edizioa 2016ko azaroaren eta abenduaren artean egindako inkestarekin bat dator, eta EHUn 2013an titulua jaso zuten promozioen lan-munduratzea aztertzen du.

**Inkestak arlo hauei buruzko balorazioa egiteko eskatzen du:** Oinarrizko prestakuntza (teorikoa eta praktikoa), adierazpena (ahozkoa eta idatzizkoa) eta harremana (lidergoa, lana taldean), pentsamendua (erabakiak hartzea, pentsamendu kritikoa, sormena) eta gaitasun instrumentalak (denboraren eta baliabideen kudeaketa, dokumentazioa kudeatzeko trebetasuna, atzerriko hizkuntzak eta informatika). Lortutako **batez besteko indizea** 2013an graduatutako promozioarena da eta 6,5 puntukoa da (0-10 arteko eskala batean). Horrek esan nahi du aurreko inkestan (2009an graduatutakoak) erreparatutako batez besteko puntuazioari eutsi zaiola.

Indize sintetikoa osatzen duten lau arlo nagusiak sakonki jorratuz, azpimarratu behar da eskuratutako Oinarrizko Prestakuntzari ematen zaiola puntuaziorik txikiena, eta horrez gainera, atzera ere egin duela (2013ko promozioan 5,9ko puntuazioa eman zioten, eta 2009an 6,3koa). Beste esparruek balorazio altuagoa jaso dute: 6,8 puntu Adierazpena eta harremanaren gaitasunak eta Pentsamenduaren gaitasunak, eta 6,3 puntu Gaitasun Instrumentalek. Hiru arlo horiek ez dute aldaketarik izan 2009ko promozioarekin lotuta izandako emaitzekin alderatuta.

**Ezagutza-arloen arabera,** Osasunaren Zientziek jaso dute eskuratutako Oinarrizko Prestakuntzaren balorazio-indizerik onena.

## 4. INGURUNEKO BEHARRETARA EGOKITZAPENA

# 9. BAT ETORRITAKO ENPLEGU-TASA

| Elkarrizketaren urtea | 2009-IV | 2010-IV | 2011-IV | 2013-II | 2013-IV | 2014-IV | 2015-IV | 2016-IV | 2017-IV | 2018-IV |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Promozioa** | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| **Bat etorritako enplegua (%) (1)** | 89 | 87 | 87 | 84 | 80 | 79 | 81 | 82 | 84 | 85 |

(1) Hirugarren mailako prestakuntza mailarekin lotutako enplegua duten pertsona landunen %. 2011ko Lanbideen Sailkapen Nazionalaren epigrafeetan sailkatutako lanpostuak hartzen ditu aintzat: 1. Enpresen zuzendariak eta kudeatzaileak, 2. Unibertsitate titulazioa duten zientzia eta adimen arloetako profesionalak, eta 3. Teknikariak eta Laguntza emateko profesionalak.

17. grafikoa - Hirugarren mailako prestakuntzarekin bat etorritako enplegu-tasa, sexuaren arabera. 2015eko promozioa




18. grafikoa - Goi-mailako prestakuntzarekin bat etorritako enplegua, ezagutza-arloaren eta sexuaren arabera. 2015eko promozioa




Iturria: Lanbide. *EHUko promozioen lan-munduratzearen ikerketa*.

**Bat etorritako enplegu-tasa** tituludunen taldearen lan-munduratzearen kalitatea neurtzeko adierazle interesgarria da. Izan ere, prestakuntza-profilaren eta lanpostuaren profilaren arteko egokitzapena neurtzen du, eskatutako kualifikazioari dagokionez.

***Lan-munduratzearen ikerketaren*** arabera, 2018an EHUn titulatutako pertsonen % 85ek hirugarren mailako prestakuntzarekin (unibertsitatekoa edo goi-mailako heziketa profesionalekoa) lotutako lanpostuak ditu. Adierazle horrek eboluzio positiboa izan du 2014. Urtetik. Urte horretan izan zuen aztertutako serieko baliorik txikiena (% 79). Baina ibilbide positiboa izan badu ere, krisiaren aurretik ikasketak amaitu zituzten promozioetan hautemandako balioak izatea ez da lortu. Hala ere, azken datuak (2018ko inkesta) erreparatuz, graduatutako biztanleriaren langabezia-tasak beheranzko ibilbidea duela berrets daiteke (% 8koa izan zen, 2013ko inkestan hautemandako % 24koa ez bezala), eta batez besteko soldatak pixka bat hobera egin dutela aurreko edizioekin alderatuta (1.560€ batez bestean 14 ordainketan eta lanaldi osoan, eta 1.398€ 2013ko inkestan). Osasunaren Zientzietan eta Ikasketa Teknikoetan tituludunek dituzte erregistrorik onenak langabezia-tasari dagokionez, bai eta jasotako soldatei dagokienez ere.

**Generoari** erreparatuz, ohi den bezala, egiaztatu da emakumeen artean baxuagoa dela bat etorritako enplegu-tasa gizonezkoei dagokiena baino, eta batez besteko soldata ere txikiagoa dela (1.506 €).

**Ezagutza-arloaren** arabera, Osasunaren Zientziek eta Ikasketa Teknikoek erregistratu dute bat-etortzerik handiena prestakuntzaren eta lanpostuaren profilaren artean: bat etorritako enplegu-tasa % 99koa eta % 95ekoa da, hurrenez hurren (EHUn 2015eko promozioan titulatutako pertsonen taldeari erreparatuz beti). Beste muturrean daude arlo ekonomiko-juridikoko tituludunak: arlo horretan bat etorritako enplegu-tasa % 68koa da. 2014ko promozioko emaitzei dagokionez, bilakaerari erreparatzen badiogu, egiaztatzen da ikasketa ekonomiko-juridikoen arloa dela okerrera egin duen bakarra bat etorritako enplegu-tasan (% 69 zen, eta % 68ra jaitsi da).

EHUren bat etorritako enplegu-tasa **euskal unibertsitate multzoaren** batez besteko tasarekin alderatzen bada, 2017ko inkestan hauteman da EHUrentzat emaitza pixka bat okerragoa dela (ehuneko puntu bat azpitik).

## 4. INGURUNEKO BEHARRETARA EGOKITZAPENA

# 10. LEHENENGO ENPLEGUA LORTU BITARTEAN IGAROTAKO DENBORA

19. grafikoa - Karrera amaitu zenetik lehen enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak Bilakaera promozio-urtearen arabera




20. grafikoa - Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak 2014ko promozioa




21. grafikoa - Karrera amaitu zenetik lehen enplegua lortu bitartean igarotako hilabeteak 2015eko promozioa




Iturria: Lanbide. *EHUko unibertsitate-promozioen lan-munduratzearen ikerketa*. EHUko promozioak.

Prestakuntza amaitzen denetik lehen enplegua lortzen den arteko epea neurtzen du adierazleak. Eskuragai dugun azken datua EHUko 2015ean graduatutako gradu-promozioaren **Lan-munduratzearen Ikerketari** (2018an egindako inkesta) dagokio, eta horren arabera, lan-munduratzeko batez besteko tartea 11 hilabetekoa da. Horrek esan nahi du epea txikitu egin zela 2014ko promozioarentzat lortutako emaitzarekin alderatuta (12 hilabetekoa izan zen haientzat). Enplegua aktiboki bilatzeko denbora murriztearen (2014ko promozioarentzat 7 hilabetekoa zen, 2015ekoarentzat, 4 hilabetekoa baino ez) ondorioz laburtu da epe hori. Karrera amaitu eta lehen enplegua bilatzen hasteko tartea, berriz, luzatu egin da.

Bestalde, lan-munduratzearen ikerketak aditzera eman du **emakumeek** ia gizonezkoen denbora bera behar dutela enplegua aurkitzeko.

**Ezagutza-arloaren** arabera, lan-merkatuari buruzko beste adierazle batzuetan lotutako aldeko emaitzekin bat etorriz, Osasunaren Zientzietan tituludunek nabarmen denbora gutxiago behar dute lehen enplegua lortzeko.

5. I+G+B IKERKETA

# 11. I+G+B-REN DIRU-SARREREN TASA/KONTRATAZIO ZUZENEKO

EHUn I+G+b-ra bideratutako guztizko funtsekiko kontratazio zuzenetik datozen diru-sarreren tasa

| 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 20,8 | 25,6 | 21,6 | 27,1 | 21,2 | 21,9 | 23,7 | 16,4 | 21,3 | 18,0 | 10,8 | 18,9 | 19,7 | 18,5 | 16,8 |

22. grafikoa - 2017an emandako/kontratatutako I+G+b-rako funtsen jatorria




Iturria: EHU, Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloak emandako datuak.

23. grafikoa - Ikerketatik eratorritako guztizko diru-sarrerekiko ikerketa aplikatutik* datozen funtsak (%).2016




(*) Ikerketa aplikatua: 4/2007 Lege Organikoaren 83l artikuluaren babesean, hirugarrengoekin kontratatzetik datozen diru-sarrerak jasotzen ditu.

Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*.

Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen oinarrizko erronketako bat enpresarekin duten harremana da. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren 2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren IV. Planak bere lan-ildoen artean hau ezartzen du: *"Herriaren erronkei erantzuteko, agerikotasun handiagoko eragile bihurtu behar du EUSek, eta planteamendu orokor horretan bereziki nabarmendu behar da enpresa-sarearekiko erlazioa". Plan hau amaitzean, EUSeko unibertsitate guztiek lankidetza-dinamika sendoagoa izan behar dute enpresa-sarearekin, ongi zehaztutako estrategia batean oinarrituta. Helburu hori izanik, prestakuntza, ikerketa eta transferentzia barne hartuko dituen ikuspegi integral batean oinarrituta hartu behar da kontuan enpresa-sarera gerturatze hori".* Planak berariaz jasotzen ditu unibertsitateek kontratupean diru-sarrerak lortzeko gaitasunak, hau da, zerbitzuak hautematen baliabideen lorpena, hobetzeko ekintzak aurreikusi behar dituztela.

Bestalde, Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022ko Estrategiak helburutzat du, unibertsitateko graduatuen enplegagarritasuna sustatzeaz eta laguntzeaz gain, enpresei eta euskal gizarteari oro har ezagutza nola besterendu sakondu behar dutela, herrialdeko ekonomia- eta gizarte-erronkei aurre egin ahal izateko. Laburbilduz, unibertsitateko ikerketaren, ekoizpen-sektorearen eta teknologia-ingurunearen arteko elkarreragina sustatu eta mesedetu nahi da.

Testuinguru horretan, adierazle horrek **kontratazio zuzen bidezko I+G+b-ren finantzazio-ehunekoa** neurtzen du. EHUren kasuan, 2017an ehuneko hori % 16,8koa izan zen. Horrek adierazten du aurreko urtean hautemandako zifrarekin (% 18,5) alderatuta uzkurdura bat izan dela, epe luzerako ibilbide irregularrarekin, baina hazkunde-zantzu garbirik gabe. Kopuru absolututan, kontratazio zuzenaren bidez lortutako funtsen bolumena 9,8 milioi eurokoa zen.

*Universidad Española en Cifras* argitalpenean jasotako datuetara jotzen bada, unibertsitateen artean aldera daiteke **ikerketaren guztizko diru-sarreren zer ehuneko biltzen duten ikerketa aplikatutik eratorritako funtsek.** Lortutako emaitzaren arabera, Estatuko unibertsitate publiko presentzialen batezbestekoaren (% 23,7ko ratioa) oso azpitik dago EHU, eta **G9** taldea osatzen duten unibertsitateen rankingean azken lekuan dago (% 13,4).

Eskualdeko unibertsitate sistema presentzialetan, I+G+b-rako baliabide-iturriei dagokienez, heterogeneotasuna da ezaugarri nagusia. Batez bestean, finantzazio pribatuak baliabide-iturrien laurdena (% 26) soilik biltzen dute). I+G-rako baliabide pribatuen erakartze-maila BPGrekin lotzen duen adierazleari heltzen bazaio, Euskal Autonomia Erkidegoa emaitza baxuak izateagatik nabarmentzen da.

## 5. I+G+B IKERKETA

## 12. DOKTORETZA-TESIAK/100 IRAKASLEKO

| Tesi kopurua/100 irakasleko | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
| 9,4 | 8,1 | 9,6 | 10,4 | 11,9 | 12,1 | 12,7 | 12,1 | 14,1 | 19,0 | 16,6 | 21,9 | 27,3 |

Iturria: iUNE Behatokia.

25. grafikoa - Defendatutako doktoretza-tesiak/100 irakasleko 2017




Iturria: iUNE Behatokia.

24. grafikoa - Tesien banaketaren bilakaera, hizkuntzaren arabera-




Iturria: EHU

2017an, EHUn 625 **doktoretza-tesi** irakurri ziren. Horrek aditzera ematen du kopuru-igoera handia izan dela 2016an hautemandako zifrarekin alderatuta: aldakuntza-tasa % +21ekoa izan da (110 tesi gehiago 2016an baino). Emaitza horrek aurreko edizioetan jada atzemandako hazkunde-joera nabarmena berresten du[1]. 2017an EHUn irakurritako tesien kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoan irakurritako tesi guztien % 85 biltzen du. Generoari erreparatuz gero, EHUn 2017an irakurritako tesien % 49 emakumeek egindakoak ziren, eta % 51, gizonezkoek egindakoak. Espainiar nazionalitateko pertsonek tesien % 83 defendatu zituzten.

iUNE Behatokiaren datuei helduz, egiaztatzen da 2017an **100 irakasleko tesi-ratioa** 27,3koa izan zela EHUn. Horrek adierazten du igoera nabarmena izan dela aurreko urtean lortutako zifrarekin alderatuta.

**G9** taldea osatzen duten unibertsitateetan adierazle horretarako lortutako emaitzak alderatuz, ikus daiteke EHU bigarren lekuan dagoela, eta 2016. urteari dagokion rankingari dagokionez, postua hobetu duela.

**Aukeratutako hizkuntzari** erreparatuz, eta EHUren Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloak emandako datuen arabera, egiaztatu da ingelesez defendatutako tesien kopurua indarrez handitu dela (170 tesi izan ziren 2016an, eta 259 tesi, 2017an). Beraz, guztizkoaren % 33 ziren 2016an, eta % 41, 2017an. Euskarazko tesien garrantzia ere handitu egin da kopuru absolutuetan (40 ziren 2016an, eta 56, berriz, 2017an) nahiz erlatiboetan (%8 ziren, eta gerora, % 9).

[1] Hazkunde-tasak hain altuak izatearen arrazoietako bat da 99/2011 Errege Dekretua baino lehenagoko araudiak jarraitzen dituzten doktoretzak iraungitzen direla. 1393/2007 EDren aurreko araudiak iraungi ziren 2016an eta 2007ko araudia jarraitzen dutenentzako, tesia defendatzeko mugaeguna 2017ko iraila zen. Horren aurrean, 2011 baino lehenagoko araudiekin doktoretzak egiten jarraitzen zutenek tesiaren irakurketa bizkortu behar izan dute, bestela, 99/2011 Errege Dekretuak arautütako programetara pasatu behar izango zuten: eskakizun handiagoekin, jarraipen eta berrikusketari, epeei dagokienez.

## 5. I+G+B IKERKETA

## 13. PATENTEEN ESKAERA/MILIOI BAT BIZTANLEKO

| Patenteak | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Espainiarrak | 5 | 7 | 9 | 12 | 16 | 7 | 17 | 19 | 25 | 22 | 8 | 7 | 8 | 10 | 8 |
| Europarrak | 1 | - | - | 2 | 8 | 8 | 13 | 8 | 8 | 11 | 6 | 9 | 4 | 9 | 7 |
| PTC (berriak eta hedapenak) (1) | 1 | 3 | 5 | 9 | 5 | 13 | 6 | 16 | 13 | 11 | 16 | 9 | 5 | 5 | 8 |
| Amerikarrak | - | - | 2 | 4 | 6 | 5 | 5 | 5 | 4 | 13 | 4 | 5 | 8 | 3 | 2 |
| Japoniarrak | - | - | - | - | - | 2 | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 | 0 | 3 | 1 | 0 |
| Beste batzuk | - | - | - | - | 1 | 13 | 11 | 16 | 40 | 30 | 29 | 2 | 14 | 7 | 18 |
| **EHUren eskaerak GUZTIRA (kop.)** | **7** | **10** | **16** | **27** | **36** | **48** | **52** | **64** | **91** | **89** | **63** | **32** | **42** | **35** | **43** |
| **EHU patenteen eskaera/milioi bat biztanleko** | **3,3** | **4,8** | **7,6** | **12,7** | **16,0** | **20,4** | **26,7** | **25,6** | **41,9** | **36,2** | **27,1** | **14,7** | **19,3** | **16,1** | **19,8** |
| **EHUn patente europarren eskaera/milioi bat biztanleko** | **0,5** | **0,0** | **0,0** | **0,9** | **3,3** | **4,3** | **6,1** | **3,7** | **3,7** | **5,0** | **2,8** | **4,1** | **1,8** | **4,1** | **3,2** |

(1) PCT: Patent Cooperation Treaty

Iturria: OTRI (Ikerketa emaitzen Gardentasun Bulegoa) eta EHU, EHUren Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloa.

26. grafikoa - Patente-eskaeren banaketa, motaren arabera. 2017




Eusko Jaurlaritzaren 2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren IV. Planak ezartzen du euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek beren balorizazioa hobetzeko erronka dutela, ezagutza sortzeaz haratago. Zentzu horretan, adierazten du beharrezkoa dela zenbait ekintza aurreikustea, patenteen eskaerarekin eta ustiapenarekin lotutako emaitzak hobetze aldera. Era berean, EHUk 2018/2021 aldirako Plan Estrategikoan bere jardueraren funtsezko adierazletzat hartzen du aintzat patenteen kopurua.

Patenteen eskaera adierazle ona da I+G-n egindako ahalegina eta unibertsitate-ikerketaren emaitzen merkataritza-orientazioa neurtzeko. Espainiako unibertsitate-sistemaren jokabideak, oro har, eta EAEkoarenak, batez ere, patenteen eskaerari dagokionez, oso posizio ahula du.

EHUk emandako datuen arabera, 2017an 43 patente-eskaera erregistratu ziren (2016an 35 izan ziren). Ratioa biztanleria aintzat hartuta kalkulatzen bada, milioi bat biztanleko 19,8 patenteko emaitza lortzen da.

iUNE Behatokiaren datuei helduz gero, egiaztatu da 2017an EHUri zegokion ratioa bigarren baxuena zela G9 taldea osatzen duten unibertsitateen artean. iUNE Behatokiaren datuek **100 irakasleko patente nazionalen** adierazlea jasotzen dute.

## 5. I+G+B IKERKETA

# 14. ZIENTZIA-EKOIZPENA/100 IRAKASLEKO

| Adierazlea | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Argitalpen* kopurua/100 irakasleko | 46 | 47 | 57 | 61 | 65 | 70 | 81 | 94 | 103 | 107 | 114 | 120 |

Iturria: iUne

28. grafikoa - Bilakaera argitalpenen kopuruan




Web of Science webguneko datuak oinarri hartuta indexatutako argitalpenak.
Iturria: EHUk zuzenean emandako informazioa.

29. grafikoa - Banaketa ezagutza-arloaren arabera, 2017




Web of Science webguneko datuak oinarri hartuta indexatutako argitalpenak.
Iturria: EHUk zuzenean emandako informazioa.

27. grafikoa - Urteko zientzia-ekoizpena/irakasleko (2017)-




Iturria: iUne

Zientzia-argitalpenen kopuruak izandako bilakaeraren analisiak aditzera ematen du, beste behin, adierazle horrek azken urteetan goranzko ibilbidea hartu duela. Hala, EHUk zuzenean emandako informazioaren arabera, **2017an Web of Sciences datu-baseetan** 3.108 **argitalpen indexatu ziren,** hau da, aurreko urteko zifraren antzeko kopurua.

**Ezagutza-arloari** dagokionez, Zientziak, Osasunaren Zientziak eta Zientzia Teknikoak adarrek erabateko nagusitasuna dute, argitalpenen % 85 biltzen baitute. Hala ere, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak eta Arteak eta Giza Zientziak eratutako blokean gora egin du argitalpen kopuruak aurreko urtearekin alderatuta (442 izatetik 482 izatera igaro da), eta beste taldeko kopuruak, berriz, behera egin du (2.757tik 2.708ra).

EHUn izandako argitalpenen kopuruaren hazkunde-dinamika hori Espainiako unibertsitate-sistema osoak bizi izan du.

**G9** taldeari dagokionez, eta iUNE Behatokiaren 2016rako datuen arabera, EHU hirugarren dago Balearretako eta Kantabriako unibertsitateen atzetik, eta aurrea hartu dio Zaragozakoari 2015eko rankingarekin alderatuta.

**6. NAZIOARTEKOTZEA**

# 15. GRADUAN MATRIKULATUTAKO IKASLE ATZERRITARREN TASA

30. grafikoa - Ikasle atzerritarrak, nazionalitatearen arabera (%)




Iturria: EHU

| Graduko ikasle atzerritarrak matrikulatutako ikasleen guztizkoarekiko (%) | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2004-2005 | 2005-2006 | 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017-2018 |
| 1,5 | 1,1 | 1,7 | 3,1 | 2,6 | 2,6 | 3,1 | 3,5 | 3,6 | 3,9 | 4,2 | 4,4 | 2,1 | 2,2 |

31. grafikoa - Graduko ikasle atzerritarrak, 2017-2018




Iturria: EHUk zuzenean emandako informazioa.

Ikasle atzerritarrak erakartzea unibertsitate-sistema bateko irakaskuntzaren kalitatearen adierazletzat jotzen da, nahiz eta beste faktore batzuek ere modu erabakigarrian eragin hautemate-maila (eskualdearen/herriaren erakargarritasuna, titulazioen eskaintza atzerriko hizkuntzetan, prezioak, laguntzak...).

EHUren 2018/2021 aldirako Plan Estrategikoan esplizituki adierazitako helburu bat da unibertsitateko zenbait talderen nazioarteko mugikortasuna sustatzea.

EHUren Ikasketa, Dokumentazio eta Proiektu arloak emandako datuei erreparatuz, 2017-2018 ikasturtean **Graduko ikasketetan 799 ikasle atzerritar matrikulatu ziren;** hau da, matrikulatutako ikasle guztien % 2,2 (2016/17 ikasturtean % 2,1 izan ziren). Azken bi ikasturtetan, kolektibo horren presentzia nabarmen txikitu da aurreko edizioetan hautemandako balioekin alderatuta, eta horren ondorioz, ordura arte hautemandako ibilbide baikorra eten egin da.

Unibertsitateko Informazio Sistema Integratuan (SIIU) jasotako datuen arabera, 2017-18 ikasturtean EHUn ikasle atzerritarren % 35 Latinoamerika eta Karibe eremukoak ziren, % 30 Europar Batasunekoak, eta % 13 Afrikaren iparraldekoak.

EHUn Graduan matrikulatutako ikasle atzerritar gehienek Gizarte Zientzien eta Zientzi Juridikoen **ezagutza-arloko** titulazioak aukeratzen dituzte (guztizkoaren erdiak baino gehiago), eta ondoren ikasketa teknikokoak (laurdenak baino gehiagok).

Espainiako Unibertsitate Sisteman eta 2018-2019ko *Datos y Cifras del Sistema Universitario Español* argitalpenaren arabera, graduko ikasle atzerritarren igoera etengabea egiaztatzen da.

6. NAZIOARTEKOTZEA

# 16. MASTER OFIZIALETAN ATZERRIKO UNIBERTSITATEETATIK DATOZEN IKASLEEN TASA

**Atzerriko unibertsitateetatik etorritako Master Ofizialetako ikasleak / Master ofizialetako ikasle guztiak (%)**

| 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017-2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16,0 | 24,4 | 28,9 | 17,1 | 20,4 | 21,0 | 22,5 | 17,1 | 13,3 | 14,0 | 11,2 |

Iturria: EHU zifratan eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

2017-2018 ikasturtean, **EHUn masterretan** atzerriko unibertsitateetatik etorritako 382 **ikasle matrikulatu ziren,** aurreko ikasturtean lortutako 464 ikasleak baino askoz ere gutxiago. Guztira dauden ikasle atzerritarren bolumen osoari erreparatuz gero, kopurua 667 pertsonakoa da.

**Masterretan matrikulatutako atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa** % 11koa da. Emaitza horrek agerian uzten du masterreko ikasketak erakargarriagoak direla nazioartean graduko ikasketak baino.

**Ezagutza-arloari** dagokionez, Gizarte Zientziek eta Zientzia Juridikoek eta Artea eta Giza Zientziak arloek biltzen dute atzerritar biztanleria handiena, eta haien atzetik, Ikasketa Teknikoek. Aitzitik, Osasun Zientzietan nazioarteko ikasle gutxiago daude. Aztertutako azken urtean hautemandako bilakaerak aditzera ematen du ikasle atzerritarren matrikulazioak gutxitu egin direla arlo guztietan.

Ezagutza-arloaren arabera, **masterren plaza eskaintza osoari** erreparatuz, egiaztatu da Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen adarrekoak direla nagusi (plazen % 36) eta Ingeniaritza eta Arkitekturakoak (% 35, ehuneko handiagoa unibertsitate publiko presentzialen multzoan hautemandakoa baino, % 23koa baitzen).

Unibertsitateko Informazio Sistema Integratuko (SIIU) datuek aditzera ematen dute 2017-20188 ikasturtean EHUn masterreko titulazioetan matrikulatutako ikasleen % 54 latinoamerikarra edo karibetarra zela, eta % 26 Europar Batasuneko herrialderen batekoa.

*Datos y Cifras del Sistema Universitario Español* argitalpenean jasotako datuen arabera, masterra egiten dabiltzan ikasle atzerritarren ehunekoa % 20,8koa izan zen 2017-18 ikasturtean unibertsitate publikoen eta pribatuen multzoan.

32. grafikoa - Masterretako plazen eskaintza, ikasketa-adarraren arabera 2017-2018 (%)




Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa. *Datos y Cifras del Sistema Universitario Español*

33. grafikoa - Atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen banaketa EHUn, ezagutza-arloaren arabera. 2017-2018




Iturria: EHUk zuzenean emandako informazioa.

**7. PRESTIGIOA**

# 17. AKREDITAZIOA BERRITZEN ZAIEN TITULUEN EHUNEKOA

34. grafikoa - Ikertzaile kopurua unibertsitateko. 2017-2018 ikasturtea




Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa

35. grafikoa - Lehiaketa-deialdi publikoetako ikertzaileen(*) kopurua / ikertzaile guztiak




(*) Langile ikertzaileak.

Iturria: SIIU

EHUk emandako datuei erreparatuz, 2017/18 ikasturtean EHUn Graduko **69 titulaziok izan zuten ANECA akreditazioa** (Kalitate eta Ziurtapenen Ebaluazio Agentzia Nazionala); hau da, guztira 71 izan baziren, guztizkoaren % 97k. Masterreko titulazioen kasuan, 106 titulaziok izan zuten ANECA akreditazioa, hau da, % 100ek.

**Lehiaketa-deialdi publikoetan ikertzaileen** kopurua/ikertzaileak guztira adierazten duen ehunekoak adierazle osagarri bat eskaintzen digu. SIIUk (Unibertsitateko Adierazle Sistema Integratua) emandako informazioak adierazten du EHUri % 64ko ratioa zegokiola 2017-18 ikasturtean, eta ehunekoak behera egin zuela 2016-17 ikasturtean hautemandakoari dagokionez (% 70). Unibertsitate publiko presentzialen multzoarekin alderatuta, ia ez dago alderik aipatutako ratioan (% 63,7).

8. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

# 18. GRADUKO EUSKARAZKO DERRIGORREZKO KREDITUEN TASA

**Euskaraz dauden derrigorrezko kredituen tasa / Ikasketa Planak eskatutako derrigorrezko kredituak guztira (%)**

| 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017-2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 67,0 | 72,0 | 73,0 | 75,5 | 76,0 | 78,0 | 66,8 | 68,3 | 77,0 | 76,8 | 72,6 | 75,9 |

Iturria: *La Universidad en Cifras* eta UPV/EHU.

36. grafikoa - Euskaran matrikulatutako ikasle hasi berrien banaketa, ezagutza-arloaren arabera, 2017/2018




Iturria: EHUk zuzenean emandako informazioa.

37. grafikoa - Euskaran matrikulatutako ikasle hasi berrien proportzioa, ezagutza-arloaren arabera, 2017/18




Iturria: EHU

EHUren Euskararen III. Plan Gidariak (2018-2022) aurreko planaren (2013-2017) ebaluazioa egiten du, eta hau azpimarratzen: "*unibertsitateko graduetan euskaraz matrikulatutakoen ehunekoak goranzko joera du, bai eta profil elebiduneko irakasleen eta ikertzaileen plazen ehunekoak ere".*

Hemen kalkulatutako adierazleak graduko titulazioetan **euskarazko derrigorrezko kredituen tasan** datza, ikasketa-planean jasotako derrigorrezko kreditu guztiekiko. Adierazle horrek % 76ko balioa lortu zuen 2017-2018 ikasturterako, ehuneko hiru puntu gehiago 2016-2017 ikasturtean lortutako ehunekoa baino.

Kopuru absolutuetan, 2017-18 ikasturtean graduko titulazioetan euskarazko 11-054 derrigorrezko kreditu izan ziren guztira. Errekor hutsa da zifra hori, eta aurreko urtean baino 97 kreditu gehiago izan zirela esan nahi du.

**Ikasle hasi berriei** erreparatuz batez ere, ikusi da 2017-2018 ikasturtean 4.205 pertsona matrikulatu zirela euskarazko kreditutan, ikasle hasi berrien % 53,3 bilduz; ehuneko hori % 51,7koa zen 2016-2017an.

**Ezagutza-arloaren** arabera, hauteman da hasi berrien euskarazko matrikulazioak gora egin duela arlo guztietan, eta Zientziaren adarrak lortu duela hasi berrien euskarazko matrikulen indizerik handiena: % 63koa, hain zuzen. Ehunekorik txikiena Ikasketa Teknikoei dagokie, % 44raino jaisten baita.

## 9. GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

# 19. EMAKUME DOKTORE IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN TASA

| Emakume Doktore Irakasle eta Ikertzaileen % / Doktore Irakasle eta Ikertzaileak | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2004-2005 | 2005-2006 | 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 |
| 35,2 | 36,4 | 37,2 | 37,9 | 38,8 | 39,4 | 39,3 | 40,4 | 41,5 | 42,1 | 40,7 | 43,2 | 44,2 |

Iturria: EHU zifratan eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

39. grafikoa - Emakumeen tasa Doktore irakasle eta ikertzaileen kolektiboan eta doktore ez diren irakasle eta ikertzaileen kolektiboan




38. grafikoa - Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa unibertsitateen arabera, 2016-2017




Iturria: SIIU

Adierazle horrek konpromisoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde hartutako konpromisoari heltzen dio. **Doktore irakasle eta ikertzaileen arteko emakumeen proportzioaren** adierazleari esker, irakasle- eta ikertzaile-taldeetan generoen ordezkaritza orekatuagoa lortzeko aurrerapausoak ematen ari diren ikus daiteke.

Hain zuzen ere, hautemandako ibilbidea baikorra da doktore irakasle eta ikertzaile taldeko emakumeen ehunekoari dagokionez: adierazleak % 44,2ko balioa lortu du, aztertutako segidako zifrarik handiena. Hala ere, gizonezko doktoreen proportzioa handiagoa da oraindik (% 75,3 gizonezkoak dira, eta % 72 emakumezkoak).

Unibertsitateko Informazio Sistema Integratuan (SIIU) bildutako datuak oinarri hartuta adierazle horrentzat lortutako emaitzei erreparatuz, egiaztatu da EHU **G9** taldean rankingaren buru dela, eta horrez gainera, Estatuko unibertsitate publiko presentzialen multzoan adierazle horrek lortutako balioaren gainetik dagoela.

## 9. GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

# 20. GRADUKO IKASKETETAN MATRIKULATUTAKO EMAKUMEZKO IKASLEEN TASA

**Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa**

| 2003-2004 | 2004-2005 | 2005-2006 | 2006-2007 | 2007-2008 | 2008-2009 | 2009-2010 | 2010-2011 | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | 2015-2016 | 2016-2017 | 2017-2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55,9 | 56,0 | 56,0 | 55,9 | 55,8 | 55,2 | 55,0 | 54,3 | 53,5 | 52,7 | 52,4 | 52,5 | 52,7 | 53,5 | 53,8 |

Iturria: EHU zifratan eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

41. grafikoa - Matrikulatutako emakumezko ikasleak, ezagutza-arloaren arabera (%).2017-2018




40. grafikoa - Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa 2017-2018




Iturria: Unibertsitateko adierazleak. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

Behin-behineko datuak.

2017-2018 ikasturtean EHUn **Graduko ikasketetan erregistratutako emakumeen parte-hartzea** % 53,8koa da. Pisu erlatiboak goranzko joera izan du azken urteetan, baina ez du lortu krisiaren aurreko urteetan bildutako proportziora iristea. Unibertsitate publiko presentzialen multzoan % 54,8ko ehunekoa hauteman da.

**Ezagutza-arloaren** arabera, sexuaren araberako banaketa oso heterogeneoa da zenbait ikasketa-adarretan. Adar guztietan emakumeak gehiengoa dira, Ikasketa Teknikoetan izan ezik, % 26,6 biltzen baitute soilik. Proportzio hori ia ez da aldatu denboraren joanean. Bilakaeraren ikuspuntutik, emakumezkoen kolektiboaren ordezkaritzak Giza Zientzietan soilik egin du gora.

EHUn **Graduan hasi berri diren ikasleei** erreparatuz gero, 2016-2017 ikasturtean banaketa hau hauteman da: % 47 gizonezkoak ziren; eta % 53 emakumezkoak. Dena dela, ingeniaritzetan hasi berrien matrikulazioak soilik hartzen badira kontuan, gizonezkoen ehunekoa % 75koa da, eta horrenbestez, emakumezkoena % 24ra jaisten da.

**Master ofizialetan,** EHUn guztizko matrikulazioen % 47 emakumezkoak izan ziren 2017-2018 ikastaroan; **Doktoretza** ikasketetan, berriz, % 53ko pisu erlatiboa dute.

# 3. Adierazleen laburpena

# 3. Adierazleen laburpena

| ARLOAK | Adierazleak | BILAKAERA | |
|---|---|---|---|
| | | Epe luzera | Azken datua |
| 1. **FINANTZIAZIOA** | 1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak | ↓ | = |
| | 2. Gastu arrunta / ikasleko | ↑ | ↑ |
| 2. **ZENBATERAINO SARTUTA DAGOEN** | 3. EHUren estaldura-tasa | ↓ | ↓ |
| 3. **PRESTAKUNTZA** | 4. Uzte-tasa | ↓ | ↓ |
| | 5. Errendimendu-tasa | ↑ | ↑ |
| | 6. Arrakasta-tasa | ↑ | ↑ |
| | 7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa | ↑ | ↑ |
| 4. **INGURUNEKO BEHARRETARA EGOKITZAPENA** | 8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa | - | - |
| | 9. Bat etorritako enplegu-tasa | ↑ | ↑ |
| | 10. Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako denbora | ↑ | ↓ |
| 5. **I+G+B IKERKETA** | 1. I +G+b-ren diru-sarreren tasa/zuzeneko kontratazioa | ↓ | ↓ |
| | 12. Doktoretza-tesiak/100 irakasleko | ↑ | ↑ |
| | 13. Patenteen eskaera/milioi bat biztanleko | ↓ | ↑ |
| | 14. Zientzia-ekoizpena / 100 irakasleko | ↑ | ↑ |
| **6. NAZIOARTEKOTZEA** | 15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa | ↑ | ↑ |
| | 16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa | ↓ | ↓ |
| **7. PRESTIGIOA** | 17. Akreditazioa berritzen zaien tituluen ehunekoa | - | - |
| 8. **HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA** | 18. Graduko euskarazko derrigorrezko kredituen tasa | ↑ | ↑ |
| 9. **GIZARTE-ERANTZUKIZUNA** | 19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa | ↑ | ↑ |
| | 20. Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasab | ↓ | ↑ |

(↑) Adierazleak gora egin du (epe luzera nahiz azken ikasturtean). (↓)Adierazleak behera egin du. (=) Adierazlea egonkor dago.
(*) Adierazle berria.

# 3. Adierazleen laburpena

Atal honen helburua da txosten honetan aintzat hartutako hogei adierazleren laburpen-ikuspegi global bat eskaintzea, epe laburrerako (azken urtea) eta epe luzerako bilakaerari erreparatuz.

- Finantzazioaren eta gastuen esparruan, azpimarratu behar da oraindik **unibertsitate-jarduera izugarri finantzatzen dela** sektore publikoko **transferentzia arrunten bidez** (2017an, % 86,3). Beraz, EHUren kasuan ehuneko hogei puntu baino gehiagoko aldea dago Estatuko unibertsitate publiko presentzialen multzoarekin alderatuta. Aitzitik, prezio publikoen bidez gastu arruntak askoz ere gutxiago ordaintzen dira prezio publikoen bidez EHUren barruan. **Ikasleko gastu arruntari** dagokionez, EHUn batez besteko balioa (10.062 € 2016/17an) askoz ere handiagoa da Espainiako unibertsitate-sistema publiko osoan hautemandakoa baino (7.071 €), nahiz eta badirudien bien arteko aldea leuntzen ari dela, oso gutxi bada ere. G9 taldeko unibertsitateen testuinguruan, hauteman da EHU jada ez dagoela rankingeko buruan adierazle horri dagokionez (Errioxako Unibertsitateak gainditu du).
- **EHUren** graduko titulazioetan **estaldura-tasa**, EAEko unibertsitate presentzialetako graduko guztizko matrikulazioei dagokienez, berriz ere txikitu egin da, eta matrikula guztiekiko hasi berrien matrikulen ehunekoa neurtzen duen berritze-tasak ere behera egin du apur bat.
- Edizio honetan, berrikuntza gisa eta **STEM izeneko profil profesionalen** gabeziak eragindako kezka orokorra zela eta, diziplina horietan matrikulazioaren bilakaera aztertu da. Emaitza horien arabera, EHUn diziplina horien pisua % 31koa izan zen 2018-19 ikasturtean (2014-15 ikasturtean % 32koa). Halaber, egiaztatu da EHUk xurgatutako STEM matrikulen kuota EAEko STEM matrikulei dagokionez handiagoa dela matrikulazio guztietan xurgatutako kuota baino (%81 da EHUn, eta % 75 EAEn). Azkenik, EHUn STEM diziplinetan emakumeen proportzioa txikia dela ikusi da (% 33koa, graduko ikasketetan emakumeek duten presentzia orokorraren, % 54ren, oso azpitik), eta denboraren joanean ia ez da aldatu.
- **Prestakuntzaren esparruan emaitzen adierazleek** bilakaera positiboa izan dute epe laburrean eta epe luzean. Hain zuzen ere, arrakasta- (2016/17 ikasturtean graduko titulazioetan % 88,6) eta errendimendu-tasek (% 77,9) gora egin dute, eta uzte-tasak ere (lehen ikasturtean % 15,8) hobekuntza erregistratu egin dute. EHUren arrakasta- eta uzte-tasak onak dira, baina rankingean behera egiten dute errendimendu-tasari dagokionez (G9 taldeko 6. da). Enpresetan borondatezko praktikak egitearen tasari dagokionez (2017/18 ikasturtean % 13,3koa izan zen), goranzko joerari eusten dio, txostenaren aurreko edizioetan jada hauteman zen bezala, eta oraingoan aztertutako segidako baliorik handiena lortu du.
- EHUn **graduatutako pertsonen lan-munduratzeari** dagokionez, eskuragarri dauden azken datuen, 2015eko promozioari buruzkoaren (2018ko inkesta) arabera, hobekuntza bat izan da bat etorritako enpleguari dagokionez (% 85). Halaber, egiaztatu da enpleguaren bilaketa aktiboaren eta enplegua lortzearen arteko tartea nabarmen txikitu dela (11 hilabete 2018. urtean), nahiz eta ikasketak amaitzearen eta enplegua bilatzen hastearen arteko tartea luzatu den.
- **Ikerketaren, berrikuntzaren eta teknologia-garapenaren** esparruan, oraindik zifra apalak lortzen dira. Esparru horretan, unibertsitate gehienek, eta batez ere, EHUk ahuleziak izan dituzte behin eta berriz. I+G-ren finantzazio pribatuari buruzko adierazleetan azken postuetan dago EHU (2017an I+G+b-ren zuzeneko kontrataziotik datozen diru-sarreren % 16,8), bai eta patenteen eskaerari buruzko adierazleetan ere. Patenteen eskaera ikerketaren emaitzak ekoizpen-ehunera besterentzearen adierazle da. Horrez gain, Europako berrikuntzaren indizean Euskadik behera egin izanaren testuinguru orokorrean kokatzen dira emaitza horiek. Beherakada horrek sektore publikoari nahiz pribatuari eragin dio.
- **Irakasleen zientzia-ekoizpenari eta doktoretza-tesiei** dagokienez, emaitzek adierazten dute EHU ondo kokatuta dagoela eta bilakaera baikorra duela.

# 3. Adierazleen laburpena

- **Nazioartekotzearen** adierazleek aditzera ematen dute ikasle atzerritarren parte-hartzea txikia dela graduetan (% 2,2koa 2017/18 ikasturtean) nahiz masterretan (% 11,2). Aztertutako azken ikasturteko datuek adierazten dute graduko titulazioetan ikasle atzerritarren tasak hobekuntza arin bat izan duela. Masterretan, aitzitik, berriz ere uzkurtu egin da tasa, eta duela urte gutxi lortutako ehunekoetatik oso urruti dago.
- **Kalitateari eta prestigioari** dagokionez, EHUk ANECA akreditazioa berritu duten titulu ehuneko handia du, eta hala, aurreko urtearekin alderatuta, ratioa hobetu egin da. Hala ere, lehiaketa-deialdi publikoetako ikertzaileen ratioa uzkurtu egin da aurreko urtearekin alderatuta.
- Hizkuntza-normalizazioaren esparruan, euskaraz eskainitako derrigorrezko kredituen tasak gora egin du, eta ordura arte hautemandako zifrarik handiena lortu du (2017/18 ikasturtean % 75,9). Halaber, euskaraz matrikulatutako ikasle hasi berriak ere ugaritu egin dira azken ikasturtean (% 53) eta 2013-2017 aldirako Euskara Planaren ebaluazioak egiaztatu du profil elebiduneko irakasleen eta ikertzaileen plazen ehunekoa handiagoa dela.
- Bukatzeko, **gizarte-erantzukizuneko** esparruan, “emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasak” (2016/17 ikasturtean % 44koa) nahiz “graduan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasak” (% 54) gora egin dute aztertutako azken urtean.

# A Eranskina. Adierazleen definizioa

# A. Eranskina. Adierazleen definizioa

| Adierazlea | Definizioa |
|---|---|
| **1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak** | Diru-sarrera gisa jasotako transferentzia arrunten eta Unibertsitatearen gastu arrunten arteko ehuneko erlazioa. Aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak. |
| **2. Gastu Arrunta /Ikasleko** | EHUren urteko gastu arruntaren (1., 2., 3. eta 4. kapituluak) eta matrikulatutako ikasle bolumenaren (euro arruntetan adierazita) arteko erlazioa. |
| **3. EHUren estaldura-tasa** | EHUn matrikulatutako graduko ikasleen ehunekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan graduan matrikulatutako unibertsitateko ikasle guztiekiko. |
| **4. Uzte-tasa** | Lehen ikasturteko uzte-tasa eta uzte-tasa globala kalkulatzen da. Azken tasa hori lehen, bigarren eta hirugarren urteko ikasketen uzte-tasen arteko batura da. Hau da tasa bakoitzaren definizioa:<br>• 1. urteko uzte-tasa: X ikasturtean hasi berri diren ikasleen proportzioa, ikasturte horretan titulazioa jaso ez dutenena eta ikerketa horretan X+1 eta X+2 ikasturtean matrikulatu gabeena.<br>• 2. urteko uzte-tasa: X ikasturtean hasi berri diren ikasleen proportzioa, ikerketa berean X+1 ikasturtean matrikulatutakoena eta titulazioa jaso ez dutenena, eta ikerketa horretan X+2 eta X+3 ikasturtean matrikulatu gabeena.<br>• 3. urteko uzte-tasa: X ikasturtean hasi berri diren ikasleen proportzioa, ikerketa berean X+2 ikasturtean matrikulatutakoena eta titulazioa jaso ez dutenena, eta ikerketa horretan X+3 eta X+4 ikasturtean matrikulatu gabeena. |
| **5. Errendimendu-tasa** | Ikerketa batean, ikasleek gainditutako guztizko kreditu kopuruaren eta matrikulatu diren kreditu kopuruaren arteko ehuneko erlazioa. |
| **6. Arrakasta-tasa** | Aipatutako ikasturtean matrikulatutako ikasle guztiek gainditutako kredituen eta matrikulatutako ikasleek erabil ditzaketen deialdietan ebaluatutako guztizko kredituen arteko ehuneko erlazioa. |
| **7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa** | Enpresan borondatezko praktikak egiten dabiltzan ikasle kopuruaren eta graduan matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren arteko ehuneko erlazioa. |
| **8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa** | Tituludunek lau gaitasun-arlori emandako balorazioaren batez besteko puntuazioa: oinarrizko prestakuntza, adierazpena eta lidergoa, pentsamendua eta gaitasun instrumentalak (0-10 puntu). |

# A. Eranskina. Adierazleen definizioa

| Adierazlea | Definizioa |
|---|---|
| **9. Bat etorritako enplegu-tasa** | Hirugarren mailako prestakuntza-mailari (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide-heziketakoa) lotutako enplegua duten pertsonen ehunekoa. CON-94 Lanbideen Sailkapen Nazionalaren epigrafeetan sailkatutako lanpostuak hartzen ditu aintzat: 1. Enpresen zuzendariak eta kudeatzaileak, 2. Unibertsitate titulazioa duten zientzia eta adimen arloetako profesionalak, eta 3. Teknikariak eta Laguntza emateko profesionalak. |
| **10. Lehenengo enplegua lortu bitartean igarotako denbora** | Titulazioa lortzen denetik lehen enplegua lortu bitartean igarotzen den denbora-tartea (hilabeteak). |
| **11. I+G+b-ren diru-sarreren tasa/kontratazio zuzeneko** | Ikerketa-zerbitzuen zuzeneko kontrataziotik datozen diru-sarreren eta Unibertsitatean ikerketara bideratutako guztizko funtsen arteko ehuneko erlazioa. |
| **12. Doktoretza-tesiak/100 irakasleko** | Urtero irakurritako tesien eta 100 irakasleren arteko erlazioa da. |
| **13. Patenteen eskaera/milioi bat biztanleko** | Milioi bat biztanleko eskatutako patente kopurua guztira eta milioi bat biztanleko eskatutako europar patente kopurua. |
| **14. Zientzia-ekoizpena/100 irakasleko** | Adierazlea bi ikuspuntutatik kalkulatzen da:<br>▪ Web of Science datu-baseetan indexatutako argitalpen kopurua bider 100 doktore irakasle eta ikertzaile.<br>▪ Zientzia-argitalpenen kopurua bider 100 irakasle, iUNE Behatokiaren datuak oinarri hartuta. |
| **15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa** | Graduan (lehen eta bigarren zikloa) matrikulatutako ikasle atzerritarren ehunekoa, graduko eta lehen eta bigarren zikloko guztizko ikasleekiko. |
| **16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa** | EHUn master ofizialetan matrikulatutako atzerriko unibertsitateetako ikasleen kopuruaren eta master ofizialetan matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren arteko erlazioa. |
| **17. Akreditazioa berritzen zaien tituluen ehunekoa** | Akreditazioaren berritzea duten graduko eta masterreko tituluak, emandako tituluen guztizko kopuruarekiko. |
| **18. Graduko euskarazko derrigorrezko kredituen tasa** | Graduko titulazioetan euskaraz egin daitezkeen derrigorrezko kreditu kopuruaren eta Graduko Ikasketa Planak eskatutako kredituen guztizko kopuruaren arteko ehuneko erlazioa. |
| **19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa** | Emakumezko doktore irakasle eta ikertzaileen ehunekoa, doktore irakasle eta ikertzaileen guztizko kopuruarekiko. |
| **20. Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa** | EHUn Graduan (lehen eta bigarren zikloan dagozkion urteetan) matrikulatutako emakumezkoen kopuruaren eta graduan (lehen eta bigarren zikloan) matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren arteko ehuneko erlazioa. |

# B. eranskina Adierazle bakoitzerako iturri eta datu erabilgarriak

# B. eranskina. Adierazle bakoitzerako iturri eta datu erabilgarriak

| Adierazlea | Adierazitako azken datua | Iturria |
|---|---|---|
| 1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak | 2017 | EHUren Gardentasun Ataria (2017); CRUE, UEC (2016) |
| 2. Gastu Arrunta /Ikasleko | 2017 | EHUren Gardentasun Ataria; CRUE, UEC (2016) |
| 3. EHUren estaldura-tasa | 2018-19 | Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren Unibertsitateko Ikasleen Estatistika eta EHUren Gardentasun Ataria |
| 4. Uzte-tasa | 2016-17 | SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistika eta CRUE, UEC |
| 5. Errendimendu-tasa | 2016-17 | SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistika. |
| 6. Arrakasta-tasa | 2016-17 | SIIU. Unibertsitateko adierazleen estatistika. |
| 7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa | 2017-18 | EHUk emandako informazioa (Praktiken eta Enplegagarritasunaren Zuzendaritza) |
| 8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa | 2013ko promozioa (2016) | Lanbide. Lan-munduratzeari buruzko ikerketa. EHUko unibertsitateko promozioak. |
| 9. Bat etorritako enplegu-tasa | 2015eko promozioa (2018) | Lanbide. Lan-munduratzeari buruzko ikerketa. EHUko unibertsitateko promozioak. |
| 10. Karrera amaitu zenetik lehen enplegua lortu bitartean igarotako denbora | 2015eko promozioa (IV-2018) | Lanbide. Lan-munduratzeari buruzko ikerketa. EHUko unibertsitateko promozioak. |
| 11. I+G+b-ren diru-sarreren tasa/kontratazio zuzeneko | 2017 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 12. Doktoretza-tesiak/100 irakasleko | 2017 | EHUk zuzenean emandako informazioa(2017) eta iUNE Behatokia (2016) |
| 13. Patenteen eskaera/milioi bat biztanleko | 2017 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 14. Zientzia-ekoizpena/100 irakasleko | 2017 | EHUk emandako datuak eta iUNE Behatokia (2016) |
| 15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa | 2017-18 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa | 2017-18 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 17. Akreditazioa berritzen zaien tituluen ehunekoa | 2017-18 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 18. Graduko euskarazko derrigorrezko kredituen tasa | 2017-18 | EHUk zuzenean emandako informazioa. |
| 19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa | 2016-17 | SIIU |
| 20. Graduko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa | 2017-18 | SIIU |

# C. Eranskina Datu absolutuak

# C. eranskina. Datu absolutuak

| AINTZAT HARTUTAKO ALDAGAI NAGUSIAK | 2007-08 | 2008-09 | 2009-10 | 2010-11 | 2011-12 | 2012-13 | 2013-14 | 2014-15 | 2015-16 | 2016-17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EHUn graduko (eta lehen eta bigarren zikloan) ikasketetan matrikulatutako ikasleen guztizko kopurua (1) | 44.164 | 42.657 | 43.100 | 42.513 | 42.072 | 41.369 | 40.475 | 39.221 | 37.087 | 36.691 | 36.484 |
| Euskal Autonomia Erkidegoan graduko (eta lehen eta bigarren zikloa) unibertsitateko ikasleen guztizko kopurua (2) | 53.931 | 51.417 | 52.772 | 52.041 | 51.867 | 51.867 | 51.240 | 49.632 | 47.884 | 48.228 | 48.487 |
| EHUn graduko (1. eta 2. zikloa) ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleak | 24.652 | 26.285 | 23.108 | 22.647 | 22.562 | 21.451 | 21.216 | 20.588 | 19.663 | 19.645 | 19.693 |
| Master ofizialetan matrikulatutako atzerriko unibertsitateetako ikasleen kopurua | 149 | 297 | 282 | 453 | 491 | 568 | -- | 503 | 421 | 464 | 382 |
| Ikerketara bideratutako funtsen guztizkoa (3) | 81.005.314 (3) | 54.779.880 | 54.225.309 | 72.918.487(3) | 49.556.033 | 57.414.088 | 71.842.247 | 47.873.451 | 78.134.624 | 53.758.282 | 58.377.945 |
| Zuzeneko kontrataziotik datozen diru-sarrerak | 12.879.145 | 11.971.837 | 12.831.034 | 11.972.137 | 10.533.971 | 10.359.093 | 7.736.243 | 9.059.973 | 15.396.801 | 9.936.019 | 9.804.457 |
| Zientzia-argitalpenen guztizko kopurua (Web of Science datu-basean indexatuak) (4) | 1.353 | 1.665 | 1.741 | 1.895 | 1.971 | 2.251 | 2.553 | 2.853 | 3.051 | 3.123 | 3.108 |
| Defendatutako doktoretza-tesiak (5) | 268 | 280 | 321 | 328 | 327 | 383 | 480 | 405 | 515 | 515 | 625 |
| Emakumezko doktore irakaslea eta ikertzaileen guztizko kopurua (6) | 1.048 | 1.104 | 1.154 | 1.164 | 1.252 | 1.371 | 1.423 | 1.304 | 1.379 | 1.456 | 1.503 |
| Doktore irakasle eta ikertzaileen guztizko kopurua (6) | 2.762 | 2.842 | 2.929 | 2.960* | 3.100 | 3.323 | 3.381 | 3.115 | 3.195 | 3.294 | 3.288 |

(1) 2009-2010 ikasturtetik aurrera, atxikitako zentroetako ikasleak aintzat hartzen dira zifra horretan.

(2) Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren Unibertsitateko Ikasleen Estatistikatik ateratako datuak.

(3) 2007ko eta 2010eko zifrek Eusko Jaurlaritzako Taldeei egindako diru-laguntzak jasotzen dituzte, diru-laguntzen zenbateko osoa aintzat hartuta, zenbait urterokotan erabiliko diren edo ez alde batera utzita, gainerako ekintzen finantzazioa adierazteko erabili diren irizpideekin bat. 2012. urtean, EJk finantzatutako ikerketa-taldeen beste deialdi bat izan zen, baina ez zen EHUren aurrekontuan aintzat hartu 2013. urtera arte estatistika-ondoreekin. 2015ean, beste deialdi bat egin zen euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko.

(4) EHUk emandako datu multzoa.

(5) 2013-2014 ikasturteari dagozkion datuak Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren 2014rako Doktoretza Tesien Estatistikatik hartutakoak dira. 2014-15, 2015-16, 2016-17 eta 2017-18 ikasturteei dagozkien datuak EHUk eman ditu.

(6) 2014-2015 ikasturtetik aurrera, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren Unibertsitateetako Langileen Estatistikatik hartu dira datuak.

# D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin

# D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin

ANALISI KONPARATIBOA

## UZTE-TASA LEHEN IKASTURTEAN (2016-2017)

(%)

| G9 TALDEA | Arteak eta giza zientziak | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | Zientziak | Osasunaren Zientziak | Ingeniaritza eta Arkitektura | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 18,2 | 14,1 | 20,2 | 9,2 | 22,8 | 16,7 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 12,7 | 10,0 | 9,9 | 3,2 | 17,3 | 10,6 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 19,4 | 12,8 | 21,3 | 11,6 | 28,8 | 17,0 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 26,1 | 23,5 | 30,3 | 8,6 | 30,8 | 23,9 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 13,9 | 13,2 | 15,4 | | 16,5 | 14,2 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | | 13,5 | | 4,7 | 22,6 | 15,8 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 29,2 | 29,1 | 23,0 | 15,8 | 42,0 | 30,9 |
| ▪ **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **14,9** | **13,5** | **14,5** | **6,1** | **25,6** | **15,8** |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 19,7 | 13,2 | 16,4 | 8,6 | 26,8 | 16,1 |
| **UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK GUZTIRA** | **21,7** | **15,4** | **18,4** | **9,6** | **25,5** | **17,8** |

Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*. 2016-2017

# D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin

## ANALISI KONPARATIBOA — ERRENDIMENDU-TASA (2016-2017)

(%)

| G9 TALDEA | Arteak eta giza zientziak | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | Zientziak | Osasunaren Zientziak | Ingeniaritza eta Arkitektura | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kantabriako Unibertsitatea | 72,9 | 76,3 | 74,2 | 90,2 | 68,1 | 75,8 |
| Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 77,4 | 78,3 | 74,8 | 93,3 | 64,1 | 78,4 |
| Extremadurako Unibertsitatea | 79,9 | 82,0 | 67,9 | 92,0 | 65,0 | 80,1 |
| Balearretako Unibertsitatea | 74,1 | 77,4 | 73,0 | 88,3 | 63,9 | 76,3 |
| Errioxako Unibertsitatea | 82,3 | 79,8 | 71,9 | | 67,3 | 76,6 |
| Nafarroako Unibertsitate Publikoa | | 83,5 | | 95,3 | 68,3 | 79,4 |
| Oviedoko Unibertsitatea | 74,8 | 77,1 | 75,5 | 91,4 | 65,4 | 75,4 |
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **82,6** | **80,2** | **77,0** | **89,9** | **64,1** | **77,7** |
| Zaragozako Unibertsitatea | 75,2 | 80,1 | 76,7 | 92,4 | 66,2 | 78,9 |
| **UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK GUZTIRA** | **79,3** | **80,6** | **76,2** | **88,9** | **67,2** | **78,7** |

Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*. 2016-2017

# D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin

## ANALISI KONPARATIBOA

## ARRAKASTA-TASA (2016-2017)

(%)

| G9 TALDEA | Arteak eta giza zientziak | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | Zientziak | Osasunaren Zientziak | Ingeniaritza eta Arkitektura | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 86,0 | 83,9 | 83,8 | 93,4 | 79,0 | 84,1 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 88,5 | 86,5 | 82,7 | 95,4 | 77,8 | 86,8 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 88,8 | 88,5 | 77,7 | 94,6 | 78,1 | 87,5 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 85,7 | 85,8 | 79,5 | 91,4 | 75,8 | 84,8 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 92,6 | 87,2 | 82,0 | | 78,4 | 85,3 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | -- | 88,3 | -- | 96,7 | 77,8 | 85,7 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 87,7 | 86,6 | 84,9 | 95,4 | 77,6 | 85,5 |
| ▪ **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **92,5** | **90,1** | **87,2** | **95,4** | **79,4** | **88,5** |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 88,0 | 88,2 | 85,7 | 95,7 | 79,2 | 87,8 |
| **UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK GUZTIRA** | **90,4** | **89,0** | **84,8** | **93,9** | **80,2** | **87,9** |

Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*. 2016-2017

ANALISI KONPARATIBOA

## IKERKETA APLIKATUTIK DATOZEN DIRU-SARREREN TASA / IKERKETATIK DATOZEN DIRU-SARRERA GUZTIAK (2016)

| G-9 TALDEA | Ikerketa aplikatuaren diru-sarrerak GUZTIRA (1) | Oinarrizko ikerketaren + Ikerketa aplikatuaren diru-sarrerak GUZTIRA (2) | (1)/(2) x 100 |
|---|---|---|---|
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 9.384.681,0 | 20.362.667,3 | 46,1 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 3.687.599,4 | 22.231.786,0 | 16,6 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 2.671.263,5 | 10.366.155,5 | 25,8 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 1.599.517,5 | 5.956.953,3 | 26,9 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 738.755,5 | 3.107.391,0 | 23,8 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | 1.563.231,0 | 5.423.181,0 | 28,8 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 5.370.032,0 | 26.175.509,4 | 20,5 |
| ▪ Euskal Herriko Unibertsitatea | **10.225.202,8** | **76.415.021,3** | **13,4** |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 13.399.736,8 | 37.494.471,4 | 35,7 |
| **UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK GUZTIRA** | **248.105.277,5** | **1.047.445.214,7** | **23,7** |

Iturria: CRUE, *La Universidad Española en Cifras*. 2016-2017

ANALISI KONPARATIBOA

## IRAKASLE ETA IKERTZAILE KOP. ETA DOKTORE IRAKASLE ETA IKERTZAILE KOP. (2016-2017)

| G-9 taldea | Irakasle eta ikertzaileak* | | Doktore irakasle eta ikertzaileak** | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Emakumezkoak | Guztizkoaren % | Emakumezko irakasle eta ikertzaileen % |
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 1.359 | 501 | 70,0 | 66,3 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 2.383 | 1.002 | 70,3 | 66,2 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 1.873 | 688 | 71,5 | 69,9 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 1.410 | 581 | 60,6 | 55,4 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 452 | 201 | 77,7 | 74,6 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | 885 | 362 | 69,0 | 66,9 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 2.076 | 829 | 86,8 | 82,3 |
| ▪ **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **4.464** | **2.022** | **73,8** | **72,0** |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 3.768 | 1.699 | 74,3 | 69,3 |
| **UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK GUZTIRA** | **101.080** | **41.117** | **74,5** | **72,6** |

*: Zentro propioetako langileak.

**: 2016-2017 ikasturteko datuak.

Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.

# D. eranskina. Azterketa konparatiboa beste unibertsitate publikoekin

## ANALISI KONPARATIBOA

## TESIAK ETA PATENTEAK (2017)

| G-9 Taldea | Tesi kopurua/100 irakasleko | Patente nazionalak / 100 irakasleko |
|---|---|---|
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 25,04 | 1,54 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 8,38 | 0,51 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 28,56 | 2,30 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 17,53 | 0,69 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 16,79 | 1,91 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | 26,82 | 0,45 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 20,99 | 0,77 |
| ▪ **Euskal Herriko Unibertsitatea** | 27,26 | 0,44 |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 18,80 | 0,28 |

Iturria: iUne

ANALISI KONPARATIBOA

## GRADUKO IKASKETETAN MATRIKULATUTAKO EMAKUMEZKO IKASLEEN TASA (2017-2018)

| G-9 Taldea | Artea eta giza zientziak | Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak | Zientziak | Osasunaren Zientziak | Ingeniaritza eta Arkitektura | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ▪ Kantabriako Unibertsitatea | 37,7 | 61,0 | 32,0 | 69,7 | 24,4 | 50,7 |
| ▪ Gaztela-Mantxako Unibertsitatea | 59,7 | 60,9 | 59,9 | 74,1 | 22,6 | 55,8 |
| ▪ Extremadurako Unibertsitatea | 59,4 | 59,7 | 55,3 | 71,8 | 23,6 | 55,3 |
| ▪ Balearretako Unibertsitatea | 63,9 | 64,7 | 53,1 | 74,0 | 18,1 | 59,3 |
| ▪ Errioxako Unibertsitatea | 59,8 | 66,0 | 48,8 | 86,3 | 19,6 | 56,8 |
| ▪ Nafarroako Unibertsitate Publikoa | -- | 63,7 | -- | 76,3 | 24,0 | 51,2 |
| ▪ Oviedoko Unibertsitatea | 61,5 | 61,8 | 49,3 | 74,3 | 26,7 | 54,2 |
| ▪ **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **65,4** | **57,7** | **54,2** | **76,4** | **26,2** | **53,8** |
| ▪ Zaragozako Unibertsitatea | 60,2 | 61,0 | 51,9 | 74,4 | 22,0 | 53,6 |
| ▪ **GUZTIRA UNIBERTSITATE PUBLIKOAK** | **64,8** | **60,7** | **52,4** | **72,1** | **25,5** | **54,8** |

Unibertsitateko ikasleen Estatistikaren aurrerapena.
Iturria: Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.